

'HITZORDUAK' TALDEAK HAUTESKUNDEEI BEGIRA BERE PROPOSAMENA AURKEZTU DU



Hitzordua taldearekin bat egiten duten hernaniarretako batzuk joan den ostiralean Biterin, aurkezpenaren ondoren.

## Datozen Udal hauteskundeetan gatazka areagotu litekeela ikusita adostasun akordioa bilatu nahi du Hitzordua-ek

■ Ostiralean aurkeztu zuten adostutako testua Biterin ■ Orain, firma biltzea hasi nahi dute herrian eta ondoren Udal taldeei bidaliko die idatzia ■ Hurrengo bilera astelehenean dute eta jendeari dei egin diote agertzeko.

HITZORDUAK taldeak testu bat adostu du "Hernanin elkarbizitza politikorako oinarriak jartzeko". Batasuna legez kanpo uzteko prozesuak eta PSE eta PPko hautetsiek jasaten duten egoerak hauteskundeetan gatazka egoera haunditu egin lezaketela uste du hitzordua-ek eta "berdintasun demokratikoan eta aukera politikoz guztien errespetuan oinarritutako" testua herrian zabaldu nahi du, erremedioa jartzeko. Hitzordua taldearen iritziz Udal hauteskundeetara begira lortu beharreko hiru puntu ezinbestekoak dira:

- 1) Alderdi guztiak baldintza berdinetan aurkeztu ahal izatea.
- 2) Hautatuak diren kargu guztiak beren karguen jabe egin ahal izatea.
- 3) Kargudunek ez dezatela inolako jazarpen edo erasorik jasan beraien ideia politikoenatik edo har ditzaketen erabaki politikoengatik.

### Firma biltzea

Testuarekin bat datorren jendearekin firma biltzea bat egitekoa du Hitzordua-ek, eta prozesu hori martxan nola jarri erabakitzeak bilera deitu du datorren astelehenean Biterin, arratsaldeko 19:30etan. Hitzordua-ek dei egin die interesatuta dauden hernaniar guztiei, bilerara agertzeko. Behin firma biltzea egitean, Udal taldeei zabalduko zaie adostutako testua.

### "Jende askoren nahia"

Ostiralean azaldu zuten, bi urte daramazki taldeak hitzaldiak, mahai inguruak eta tertulioak antolatzen eta ekitaldi horietan entzundakoa-gatik jende askoren nahia da "hitz egitetik haratago urrats bat eman eta ekintza zehatz baten murgiltzea". Hortik abiatuta egin dute adostasun akordioarako testu hau, ostiralean esan zuten hilabete-tako lana eta gero. □

### HITZORDUAKEK ELKARBIZITZA PAKETSU ETA DEMOKRATIKOAREN OINARRI JOTZEN DITUEN PUNTUAK

- Pertsonen funtsezko eskubideak errespetatu eta defendatzea herrien antolamendu eta elkarbizitzarako oinarria da.

inork ez du torturarik, ez tratu txarrik, ez irainik, ez mehatxurik jasan behar, ez eta bere ideiegatik edo ideiak jende aurrean adierazteagatik edo ordezkatzegatik jazarpenik ez erasorik jasan behar ere.

- Euskal gizartean ditugun nortasun ideia eta sentimenduen aniztasuna aberasgarri da kultura, politika zein gizarte mailan, eta aniztasun hori babestu eta zaindu behar da.

- Giza eskubideak aintzakotzat hartzen dituzten proiektu politiko guztiak dira zilegi; aukera-berdintasunean defendatu eta garatu behar dira; eta praktikan jarri ahal izan behar dira herritarren gehiengoaren babesa badute, beti ere gutxiengoari zor zaien erabateko errespetuarekin.

- Demokrasiaren oinarria da herritarren aniztasunak bere botoarekin legitimatzen dituen aukera politikoak modu askean adierazteko ahalmena eta horien benetako defentsa egitea. Adierazpen eta defentsa horri jarritako edozein oztopo, botoak ez badira, demokrasiaren aurkako atentatua da.

### Bilera Osiñagan

OSIÑAGAKO auzo elkarteak bilera du gaur Olazagirre SA zerrategiaren kasuari buruz hitz egiteko. Bileran udal ordezkariak ere izango dira. Gaur, 12:00etan Arriatsun. □

### Jubilatuak Iratxera

Jubilatu Etxeak bidaia antolatu du Iratxera eta sortea bihar egingo da jubilatutakoan, arratsaldeko 17:00etan. Bestalde, asteartean hasiko da mus txapelketa. □

### Kofradiaren festa gaur

TOLAREA sagardo naturalaren kofradiak 8garren urtea bete du eta ekitaldia du gaur. Ekitaldi nagusia eguerdiko 12:00etan da Biterin, ohorezko kofradeak bertan egingo baitituzte. □

### Anorexia eta bulimiari buruz hitzaldia Urumean

URUMEA ikastolan hitzaldia dute datorren asteartean. Hitzaldiaren izenburua da *Elikadura nahasteak: anorexia eta bulimia. Prebentzio programa*. Asteartean, Elkanoko zentroko liburategian, arratsaldeko 19:00etan. □

### Txistulari bandaren kontzertua Milagrosan

TXISTULARI bandak eta Tronpeta bikoteak kontzertua emango dute gaur Milagrosan, eguerdiko 13:00etan. Musika Eskolako bost ikaslek ere parte hartuko dute. □

### FUTBOLA

#### Pasajes 8-Hernani 0

EGUR haundia jaso zuen mutilen Gorengo taldeak atzo liderraren kontra. Denboraldia ez dijoa nahi bezala, eta taldeak burua altza beharra du.

#### Kopan 0-4 irabazi dute

NESKEK kopako lehen partidua zuten Amara berriren kontra eta 0-4 irabazi dute, ondo jokatu. □

### XIX MUS TXAPELKETA ARALAR TABERNA



**HERNANI**

**IZEN EMATEA:**

**BIKOTEKO 40 euro**

**EPEA: Azken egunak**

#### SARIAK

- 1.- **1.800 euro** TROFEOA, TXAPELA eta OPARIA
- 2.- **1.000 euro** TROFEOA eta OPARIA
- 3.- **500 euro** TROFEOA eta OPARIA
- 4.- **300 euro** TROFEOA eta OPARIA
5. **tik 8.gora ERRIOXAKO bodega batera bidaia**

### YGALDETZO

Jatetxea



Bazkariak eta Afariak

Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 55 02 40  
20128 HERNANI (Gipuzkoa)

**YONE**  
boutique  
**UDABERRI  
UDAKO**  
denboraldia hasi  
dugu.  
Gustatuko zaizu.  
Nagusia 63 (Hernani)  
Hipodromo etorb. (Lasarte)



Antton Mendizabal eta Malores Etxeberria mikrofonoan eta beste parte hartzaileak atzean.

## Pello Zubiriaren adiskide eta ingurukoek ekitaldi hunkigarria egin zuten Lugaritzen

Argian kolaboratzen duen jendeak eta lagunak bakoitzak bere bizipenetik kontatu zuten Zubiriaren egoerak eta azken gertakariak eragin ditena.

OSTIRALEAN ekitaldia egin zuten Argiako kolaboratzaile eta Pello Zubiriaren ingurukoek, Antiguoko Lugaritz kultur etxean. Iñaki Mendigu-ren, Juanma Zaldua, Jakoba Errekondo, Tere Irastorza, Xabier Agirre, Emilio Lopez Adan, Txirri, Mirri eta Txilibiton, Jon Alonso, Arantxa Iturbe, Andoni Egaña, Iñaki Murua, Antton

Mendizabal eta Julen Lekuona izan ziren parte hartu zutenek batzuk eta ikusleen artean Zubiriaren inguruko eta kultur-gintzako jende asko elkartu zen. Parte hartzaileek beren ikuspuntutik eta beren ofiziotik eman zuten egoeraren berri, bakoitzak sentitzen zuen moduan. Ekitaldian Malores Etxeberria Zubiriaren emazteak hitz

egin zuen eta Zubiriaren eta Etxeberria beraren partetik eskerak eman zizkien guztiei eta Lugaritzko ekitalditik bisita bakarrean kontatu ezingo zuen gauza mordoia zeramakielara esan zuen. Ekitaldiaren helburua zerbait xumea eta intimoa egitea zen, eta xumea, gertukoa eta hunkigarria izan zen, ikusleen hitzetan. □

### KORRIKA 13

## AEK-k 500 bono saldu ditu dagoeneko eta helburua Hernanin 1000 egitera iristea da

Bono laguntzak 10 eurotakoak dira eta taberna eta komertzioetan hartu litzeke.

KORRIKA apirilaren 4an hasiko da eta alde zuzenetik laguntza kanpaina ari da egiten AEK herriz herri. Aurten inoiz baino gehiago behar dute diru laguntza AEK-koen hitzetan, "AEKren kontrako erasoak eta Garzonen erasoak" medio. Hernanin bonoak dauzate salgai 10 eurotan Urbietan, Haizea, Adarra, eta Peña dendentan, AEKn bertan eta Oinddi, Kitto, Egoki, Aralar, Aker eta Riojano tabernetan. AEK-ko arduradunek Kronikari esan diotenez oso harrera ona izan du kanpainak eta dagoeneko 500 bono hartu ditu jendeak. Helburua 1.000 egitera iristea da. □



Ibon Goia, Irene Arraras, Ixiar Etxeberria, Eli Igartzabal eta Harkaitz Martinez AEKren aldeko laguntza bonoa betetzen.

### HITZ BITAN

#### ✓ BERTSOLARITZA

**Hiru hernaniar gaur Orixeko finalean.** Orixe sarike-tako finala jokatu da gaur Añorgako zinean, goizeko 11:30etan. Sei finalistetatik hiru hernaniarrak dira: Iñaki Zelaia, Estitxu Eizagirre eta Aritz Zerain. Hauez gain Axier eta Andoni Otamendi eta Iñigo Manzisidor *Mantxik* kantatuko dute.

#### ✓ ERRUGBIA

**Hernani-Ordizia Landaren.** Liderraren kontra jokatu du Hernanik gaur landaren, eguerdiko 12:00etan. Ordizia oso ondo ari da aurten eta Hernanik partidua zaila izango du, baina, hirugarren postutik gora begira jartzeko aukera ona du gaur. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077
- ▶ Gaez: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077

### ESKERTZA

#### Jose Angel Usarraga Albizu

Martxoaren 12an hil zen 56 urte zituela

Jose Angelen senitartekoei eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun hauetan gurekin egon zaretenoi eta hiletara etorri zireten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin 2003ko martxoaren 16an

### IRAGARKI MERKEAK

Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke goizetan. (Informe eta erreferentziarik). Deitu: **699 14 92 85**

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: **656 78 64 15 (Kepa)**

55 urteko emakume batek etxeko lanak egin, umeak zaindu edo antzeko lanak egingo lituzke. Erresponsiblea eta langilea. Deitu: **943 55 54 36**

LAGUNTZAILEA, agentea edo Justizi-ofiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegietan lana. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENaren deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomata edo lizentziatua. Erdi mailako ingelera. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziarik gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaituz. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babeguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaituz. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

SUHILTAILEAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezin hobekak. Betebeharra: Eskola Graduatua. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

GARRAIOLARIA. Garraiolari profesional izateko gaitze-titulua lor ezazu ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

ADMINISTRARI laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduatua. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaituz ADOZ **943 44 45 09**

LIBURUTEGI laguntzailea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzaileak). Bertako udaletan deialdiak zabalik. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalterno bezala lan egiteko. ADOZek informatzen du: **943 44 45 09**

## KulunKa

eEgurraren zaharberritzea  
eTapizeria  
eArtisautzazko marketeria



Kontserbazio eta zaharberritze lantegia

Tellerigain. 49 - kulunka@gabiltza.org  
Tel.: 943 551 739 - 667 721 434

### ASTE SANTUAN

bidaiatu  
autobusez

- SEVILLA: 339 eurotik - AD  
Apirilak 16tik 21era
- CABO de GATA: 254,90 euro  
Apirilak 16tik 21era
- GALICIA: 192, 40 eurotik  
Apirilak 16tik 21era
- EXTREMADURA: 272 euro  
Apirilak 16tik 21era

- VENECIA: 280 eurotik
- BRETAÑA-NORMANDIA: 276,10 eurotik
- PARIS: 178 eurotik
- AMSTERDAM: 275 eurotik
- MARRUECOS: 11 egun  
436 eurotik

### HERNANI BIDAIK

Urbietan etorb.6 - ☎: 943 330049 - 330174 - e-mail: hernanib@teletelne.es  
Konponketa lanak direla eta, kalean beste aldean gaude bolada baterako.



**HORBEL** jatetxea

Bokatak, pintxoak, razioak, platerak, entsaladak, sandwichak, hanburgesak

Etxeraino eramango dizugu.  
Eskatu!

Lizeaga kalea 4  
Tel.: 943 33 33 95

**SAGARDO NATURALA**  
Hernaniko Sagardoa

tolare

**OTSUA-ENEA**  
Osifaga auzoa • Tel. 943 55 68 94 • HERNANI

**ASTE SANTUAN**  
bidaiatu  
autobusez

- SEVILLA: 339 eurotik - AD  
Apirilak 16tik 21era
- CABO de GATA: 254,90 euro  
Apirilak 16tik 21era
- GALICIA: 192, 40 eurotik  
Apirilak 16tik 21era
- EXTREMADURA: 272 euro  
Apirilak 16tik 21era
- VENECIA: 280 eurotik
- BRETAÑA-NORMANDIA: 276,10 eurotik
- PARIS: 178 eurotik
- AMSTERDAM: 275 eurotik
- MARRUECOS: 11 egun  
436 eurotik

**HERNANI BIDAIK**  
Urbietan etorb.6 - ☎: 943 330049 - 330174 - e-mail: hernanib@teletelne.es  
Konponketa lanak direla eta, kalean beste aldean gaude bolada baterako.